

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Futbola hezitzailea denean

Emakumeen parte-hartzea, gurasoen papera..., hizpide ugari Igor Bere eta Pablo de Torresekkin. / 10-11

Urnietako Gure Esku Dagoren 'Klik eguna'

Ekainaren 10eko giza-kate erraldoiari begira, parte-hartzaileak erakartzeko goiz osoko kultur jarduerak antolatuko dituzte larunbatean San Juan plazan / 6



"Masacre, una breve historia del capitalismo español" antzezlan, ostiral honetan Basteron / 15

Kalegiroan zikloa biderkatu dute Andoainen. Lehen txanda larunbat honetan, bigarrena irailean / 9



Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Borobilean" ikuskizuna, ostiral honetan Urnietan / 7

LOURDES IRIONDO
UDAL MUSIKA ESKOLA

2018-2019 IKASTURTEA
Maiatzak 16 - 25

lourdesiriondo@urnieta.eus
San Joan plaza 2/g
20130 Urnieta
943 008 033

udal musika eskola

www.urnieta.eus | Urnieta Urtan | Urnieta Eskola | Urnieta Ego



San Isidro egunean ekitaldi bikoitza izan zen iluntzean. Eskualdeko txistulariak kalejiran ibili ziren bitartean, Araoz abesbatzak emanaldia eskaini zuen elizan. Behean, goizeko meza osteko bertso saioa Lekaion. AIURRI

San Isidro eguna kulturaz blai

Jai eguna ez bazen ere, festa modukoa izan zen asteartea Urnietan. San Isidro nekazarien egunaren bueltan antolatu ohi diren hitzorduez gain, musika hitzordu bikoitza izan zen: Txistularien kalejira eta Araoz abesbatzaren emanaldia elizan

Xabier Lasa URNIETA

Tradiziozko mezaren ostean bertso saioa eta hamaiketakoaren txanda izan zen Lekaion. Bertan, Beñat Gaztelumendik eta Agin Laburuk bertso saio bikaina osatu zuten, librean. Gai ugari ukitu zituzten: San Isidro eguneko meza Urnietan, elizarako gazteen joerarik eza, gaztetasuna, zahartzaroa...

Arratsaldean, txistularien topaketa antolatu zuen Txanbolin taldeak. Buruntzaldea, Errenteria eta Donostiako txistulariak kaleetan barrena ibili ziren, Jose Ignazio Ansorenak zuzenduta. Ondoren, Easo abesbatzako emakumeek osatutako Araoz abesbatzak emanaldia eskaini zuen San Migel elizan. Ana Belen Garcia piano-jotzaileak lagunduta, abesbatzak hainbat konposatzaile erromantikoren obrak interpretatu zituen.

Bertso saioa Lekaion

Agin Laburu:
Egunon danoi hamabi t'erdik
Ia ia izango di(r)a.
Hori nahikoa degu hasteko
Beñat ta nik arrazoia.
Bertsotarako nahiz eta asko
beharrrik ez dan sasoia,
rimatuz eta neurtuz doa
gaurko bigarren sermoia.

Beñat Gaztelumendi:
Etorri gara honantz eta
mahai guztia zegon lepo.
Begira Agin platerak hutsik
dauzkagu dagoeneko.
Hementxe gaude bertso kantari
tripa degula konpleto,
giro honetan moldatzen gera
elizan baino hobeto.

Agin Laburu:
Elizan baino askoz hobeto
ezin dek egin ordea.
Lenengo filan hantxe baigeunden

ezin zen egon gordea.
Apaizak ere erakutsi dik
kaliza bat dotorea,
baina elizan edo mahai hontan
non dago ardo hobea?

Beñat Gaztelumendi:
Hangoa ona zegoen baina
hau gehiago gustatu neri.
Eliz kontutan biok ez dugu
eta ohitura gehiegi.
Hainbeste urte joan gabe ta
ezin ohiturari segi,
ia asmatu ezinda geunden
noiz altxa ta noiz eseri.

Agin Laburu:
Arrazoi dek bai, izan gabeak
geralako gu aintzinan.
Ezjakitunak izaten gera
berdina hemen eta berdin han.
Noiz altxa eta noiz eseri, hor
galdezka geunden iskinan.
Txorixo eta tortila balitz
gehiagotan joango ginan.





Maiatzak **18**
OSTIRALA

17:30 URNIETA
Egape ikastolako
jolastoki estalia

Aurre salmenta:
URNIETA

- Bikain okindegia. San Juan plaza.
- Xauxar Taberna. Idiazabal kalea.

ANDOAIN

- Aiurri. Arantzibia plaza.
- Ernaitza liburu-denda. Zumea kalea.

7€

AIURRI



SALMENTA

- Egunean bertan.
16:30. Aretoaren atarian.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Zenbakiak

Askorako eman du asteburuak. Zenbatzen hasita, nahi adina aipa daiteke. Kolore askotakoak. 21.500 lagun Anoetan nesken Real-Athletic derbia ikusten. Mutilen partidatan adina, edo gehiago, askoren harridura edo ezinegonerako. Kopuru horri arantza ateratzeraino. Realak ikastoletan gonbidapenak banatu zituela, sarrera doan zela, familia asko saltoki handietara bezala, horrela hurbildu zela Anoetara... Nire partez, hurbildu ziren guztiei zorionak, ea nesken partidak sarriago ikusten ditugun Anoetan.

83.000 lagun batu omen ziren Bilbon Europako Errugbiko bi txapelketa handietako finalak ikusteko. Euskal Herria kontinente zaharreko begietara ireki duen ekitaldia. Baina sare sozialetan, jendea hainbat medio 100.000 lagun baino gehiago batu zirela saldu izana kritikatzeko. 83.000 edo 100.000, badirudi zenbaitzuk ez dutela nahi Euskal Herrian halako ekitaldirik egitea. Ez behintzat gorroto den futbol taldeko hiriburuan baldin bada. Aurreraka ez, atzeraka goaz.

550 egun! Altsasuko hiru gaztek behin-behineko espetxealdian daramaten denbora. Urte eta erdi, parranda arrunt bateko borroka batean Guardia Zibilak zeudelako. Haiak, baina, ez dute barkatzen, ez dute oldartzea barkatzen, eta zigor gogorra bilatuko dute arbitrorik ez daukan justiziarik gabeko epaitegian. A eta l-z hasten den beste herri batean borroka larriagoa gertatu zen larunbatean. Baina hura borroka arrunta da, ez terrorismoa. Zoido ministroak esana. Algeciras eta Altsasu. Amen.

14 urte, Bilbo Basketek elitean egin dituenak. Maila galdu zuen asteburuan, eta Urrezko LEB Ligan aritu beharko du, aritzen

bada, eta zorrek ito edo desagerrarazten ez badute.

Bigarrenaz lortu dute igoera Jokin Jimenez eta Patxi Morandeira entrenatzaile urnietarrek Bera Berako jubenilen taldearekin. Eta bi minutu atera zizkion Ibai Iriondok Peio Martini larunbatean BTn Ugalde txotik

Aranora egin zuten desafioan. 34 minutu garaileak, 36 galtzaileak. Galtzaileak 26 kilo gutxiago izanda ere! Parrandan ere pisu handieneko mutilak irabazi omen zuen, lehia estua izan bazen ere. Toki gehiago, likidua gordetzeko, nonbait...

Eta 1. Euroligako Lauko Finala Euskal Herrian jokatu da lehen aldiz, Gasteizen. 2019an. Kerejetak erretiroa hartzeko aitzakia ezin hobea.

POSTONTZIA

Eskertza

SANTAKRUTZ JAI BATZORDEA

Pasa dira gure jai kuttunak, eta Santakruz Jai Batzordetik eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Haur pregoitik hasita, eta Herri danborradarekin amaituta, giro ederrean joan dira jaiak! Euriak ere ezin izan dizkigu zapuztu lehen egunak. Ekintza ezberdinez, kolorez, jende ugariz eta, batez ere umore onez bete dira kaleak.

Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkiegu jaietan era batera edo bestera parte hartu duzuen guztiei: dendariak, hostalariak, herriko talde eta eragile ezberdinak, elkarrekin, eta norbanakoak..., mila esker bihotzez, beste urtebetez, guztiontzat hain bereziak diren jaiak aurrera eramaten laguntzeagatik.



Zuek gabe, ezer ez litzake posible izango. Datorren urtean, berriro ere, Santa

Kruz jaietan elkar ikusiko dugu!
Gora Santakruzak!

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
 ANDOAINO UDALA, Urnietako Udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
 EUSKO JAIERAREN GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia, Huelmas Berlinguesmerako Zuzendaritza
 ZIURTAGIRIA: Bitkarn
 BABESLEAK: AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

“Interneten baino informazio zehatzagoa eskaintzen dugu”

GARBIÑE MARTIJA NOAOA BIDAIAK BIDAIA-AGENTZIA

Erredakzioa ANDOAIN

Udan pentsatzen ari gara jada.

Denbora daramagu udarako erreserbak egiten, zenbat eta denbora gehiagorekin egin, hobe ateratzen baita prezioz. **Oporraldi garairako, ez ohiko bidaiak proposatuko al zeniguke?** Udan gehiengoak hondartza du buruan, baina badira bidaiak oso interesgarriak, adibidez Eskoziara. Parajeak, gazteluak, kultura, destilieriak..., oso interesgarria egiten den ez ohiko bidaiak da. **Hamabostaldi baterako edo astebeterako, zer eskaintzen duzue?**

Eskoziara irailean bisitatuko dugu taldean, astebeteko bidaiak batean. Hamabostaldi baterako, ondo ezagutzen dugun Bali proposatuko genizueke.

Garaiaren arabera ere asko aldatzen al da eskaintza?

Bai, noski. Normalean eguraldi onaren bila abiatzen gara. Neguan iparraldeko herrialdeak ere oso



Garbiñe Martija, Noaoa bidaiak bidaiak-agentziaren bulegoan. AIURRI

interesgarriak dira bisitatzeko, eskaintza ezberdina delako.

Ekainean nora joatea aholkatzen diguzu?

Ekainean kruzeroa egingo genuke. Hemendik, taldean

joango den irteera antolatu dugu Greziako uharteetara.

Eta uztailean edo abuztuan?

Egun kopuruaren arabera eta aurrekontuaren arabera asko alda daiteke. Asia aldera

bidaiak proposatuko nuke, eta gertuago, Balear uharteetara edota Cadizeko kostaldera.

Eta iraila-urrian?

Zirkuitu edo ibilbidea egingo nuke Eskoziara, edota Alemaniako Selva Negrara astebeteko bidaiak.

Bezeroen joerak zeintzu dira?

Udan, adibidez, jendea kostatik asko mugitzen da Kanariar edota balear uharteetara. Kruzeroek gora egin dute azken urteetan.

Bidaiak agentziak zein balio erantsi eskaintza behar du, on line salmenta zuzenak dakarkizuen kompetentzia gainditzeko?

Bidaiak agentzia batek informazio zehatzagoa eman dezake internetek baino. Gure balio erantsia dugun ezagutza eta urteetako esperientzia da. Bost kontinenteetan zehar bidaiatu dugu. Nondik nora ibili, non jan, bisitaldiak nola egin..., ezagutza hori badugu. Horrez gain, bidaiaren jarraipen zehatza egiten dugu. Internet sareak ez dizu horrelakorik eskaintzen.

Bidaiariari zein aholku eman ohi diozue atzerrira doanean?

Kasu bakoitza aztertu beharko litzateke, nora doan, eta noiz. Gure indargunea eztei-bidaiak dira, bidaiak handiak beraz. Kasuan kasuko informazio pertsonalizatua eskaintzen dugu.

HAU ERE BADUGU!

Merkataritza interesak Instagram sarean



@salkin_andoain kontua sortu berri du Salkin merkatarien elkarteak. Haien aurretik, elkarteko hainbat kidek erabilera aktiboa dute indar handia hartzen ari den sare sozialean. Gogoan izan, Salkinek maiatzean erosketak euren dendetan egiten dituztenen artean afariak zozketatuko dituela.

Arruti gozotegiaren egunerokoa, irudi bidez



@salkin_andoain kontuaren garai beretsuan, Zumea kaleko @arrutigozotegia negozioak Instagram kontua zabaldu du. Eta bertako denbora lerroan sartuta, tarta, pasta eta gozo ugari ateratako argazkiak ikusgai daude. Produktua zabaltzeko modu berria, bezeroak erakartzeko osagarria.

Urnieta APP

Maiatzeko azken asteburua ekitaldiz beterik dator. Argazkizaleentzat Argazki-rallya, esaterako. APP-an oinarriak eskegita daude. Eta baita aurtengo Gazte Festen egitarau osoa ere.



DATUA

Bisitariak

Otietako Bisitarien Etxea Leitzaran haranerako sarbide bikaina da, are gehiago, informazio bulegoa bertan ipini dutenetik. Irekiera ekitaldian zera nabarmendu zuten: Geroz eta gehiago direla ingurutik hurbiltzen direnak. Baina ez dira bakarrak. Kanpokoen artean, kopuruari erreparatuta, katalanak, madrildarrak, frantsesak eta alemanak dira nagusi. Bizikleten alokairu zerbitzua eskaintzen hasi zirenetik, gainera, askotxo dira Donostiatik Otietara hurbiltzen diren turistak. Bizikleta gaineko jarduera handitzea helburu dute.

GORA ETA BEHERA



Milaka lagun Anoetan, emakumezkoen Ligako partidariak

Sare sozialen bitartez zabaldu zen eskaera, eta azkenean Realeko arduradunek derbia Zubietatik Anoetara eraman zuten. Ez zen eskaera hutsala, herritarrek erantzun bikaina eman baitzuten. 20.000tik gora zaletu bildu ziren, besteak beste, Nahikari Garcia urnietarra jokoan ikusteko. Anoetako esperientzia errepikatuko dute.



Gazte jaiak Urnietan, maiatzaren 25ean hasita

Maiatzeko azken asteburua ekitaldiz beterik dator. San Juan plazan, Etxeberri plazan edota Egape ikastolako jolastokian ospakizunak iragarri dituzte. Horiez gain, Urnietan tradizio handia duten Benjamin kirol jaia edota Argazki-rallyaren edizio berria

Erredakzioa URNIETA

Ekitaldi ugari izango da aukeran, aurtengo gazte festetan. Ostiral arratsaldean abiatuko dira eta asteburu osoan zehar hamaika hitzordu burutuko dira.

Maiatzak 25, ostirala

Urnietako Challenge izeneko jolasa antolatu dute Gaztelekuak eta kale hezitzaileek, elkarrekin. Parte hartu nahi duenak izena eman behar du, aurretik. 11-17 urtekoei zuzenduta dago.

18:00ak aldera Poxta Zahar taldeak jolasak antolatuko ditu. Eta ordu beretsuan, Etxeberri plazan, Apaxi ipuin-kontalaria arituko da. Plazan bertan sardinpoteoa, bingoa eta musika antolatu ditu bertako auzokideen elkarteak.

19:30ean txupinazoa botako dute udaletxeko balkoitik. Gauean, berriz, afari tematikoa eta Matraka elektro-txarangaren kalejira iragarri dituzte. Horiexek, beraz, jaietako lehen hitzorduak.



Wilsson & Wilsonetis taldeak Fito & Fitipaldis taldearen bertsoak egiten ditu.

Maiatzak 26 larunbata

Bi kirol hitzordu aipatu behar dira, inguruko herrietako kirolariak erakarriko baitituzte. Goizean, Benjamin jaia. Arratsaldean, Andoaingo Txirrindulari Eskolarekin batera, txirrindularitza lasterketa. Gauean,

Fito eta Fitipaldisen bertso taldea zuzenean arituko da.

Maiatzak 27, igandea

Diana, puzgarriak eta Txanbolinen emanaldia iragarrita daude, igande goizerako. Arratsaldean DJa eta haur tailerrak.



Sinadurak biltzeko karpa ipintzen ari dira Urnietan, larunbatero. GED

Erabakitze eskubidearen alde, larunbatean San Juan plazan

Goizeko 11:00tan hasita "Klik Eguna" San Juan plazan, Urnietako Gure Esku Dagok antolatuta

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Gure Esku Dago taldea sentsibilizazio kanpaina egiten ari da asteburuero, ekainaren 10eko giza-kateari begira. Euskal Herri osotik 100.000 lagunengatik parte hartzea espero da, eta Urnietatik 250 lagun beharko dira. Urnietarrei Usurbilgo Aginan egotea egokitu zaie, 500 metroko tartea osatzeko. Antolatzaileek bidalitako oharren arabera, ekainaren 10ean "autobusak goizeko 10:00etan aterako dira Anbulategi zaharren ondoko biribilgunetik, eta ondoren, ekitaldia amaitu ostean, 12:30 inguruan berriro Urnietara itzuliko dira autobusak". Izen-ematea herriko hainbat tokitan egin daiteke.

Klik eguna San Juan plazan

11:00-12:00 Joxe Mari Mujika, Fermin Argiñarena eta Andoni Mujika bertsoari buruzko agurra. Segidan, Egaperen dantza saioa, Bertso Eskolako kideen saioa eta kantaldia Txanbolin musika taldeak lagunduta.

12:00-13:30 Hamaiketako herriko merkatarien eskutik. Pankarta erraldoia osatu da orrialde desberdinetan idatzitako argudioekin.

13:30 Taldeko argazkia plazan.

Zozketa eguerdian

Euro bateko txartelarekin, 20 sarien zozketan parte har daiteke.

Parte-hartze prozesuaren berri emateko bilera irekia, Lekaion

Urtarrilean abiatu zuten parte-hartze prozesuaren emaitza ostegun honetan aditzera emango du Udalak

Erredakzioa URNIETA

2018ko aurrekontutik 125.000 zertara bideratu erabakitze prozesuaren parte-hartze prozesua martxan jarri zuen Udalak urte hasieran. 157 galdetegi jaso zituzten dena, eta horietatik 142 galdetegi ontzat eman zituzten. Geroztik, onartutako horiek guztiak aztertzen aritu dira Udaleko Lurraldea saileko teknikariak. Besteak beste, adierazitako

proposamenak aurrekontuan sar daitezkeen edo ez aztertu dute. Prozesuari amaiera eman eta aukeraturako proposamenak jakinarazteko bilera irekia deitu dute, ostegun honetarako.

18:30ean, ostegun honetan

Argibide guztiak eskainiko dituzte Lekaion, ostegun honetan. Udalak herritarrei bertaratzeko deia luzatu die.



AIURRI

Santa Barbarara, presoaren eskubideen alde

Sare plataformak eskualdeko presoaren eskubideen aldeko mendi irteera antolatu du, Hernaniko Santa Barbarara. Igande honetan izango da, eta bertan kultur ekitaldia egingo dutela iragarri dute. Eguerdiko 12:00tara iragarrita dago kultur ekitaldia. Hara iristeko, Andoaindik goizeko 10:30ean irtengo dira Goikoplazatik, eta ordu berean Urnietako San Juan plazatik. Horrez gain, datorren maiatzaren 30ean Joseba Azkarraga politikari ohiak hitzaldia eskainiko du Lekaion, arratsaldeko 19:00tan hasita.

"Borobilean" ikuskizuna, ostiral arratsaldean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia eskainiko dute ostiral honetan Egape ikastolako jolastoki estalian, arratsaldeko 17:30ean hasita. Sarrerak salgai daude Idiazabal kaleko Xauxar tabernan eta San Juan plazako BKN kafetegian

Erredakzioa URNIETA

Ostiral honetan pailazo ezagunek "Borobilean" ikuskizuna taula-ratuko dute, Egapeko jolastoki estalian. Urteak dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunak Urnietara ikuskizun berriena eskaintzera bertaraten direla, eta muntaia berriarekin ere gogotsu hurbilduko dira herrira. Pailazoen muntaia berriaren galdera egingo diote euren buruari: "Nork agintzen du etxean? Nork eskolan? Eta kalean? Lagunartean?". Borobilean eseriko dira denak, begiak eta bihotzak elkarri begira: Arauak ezarri, ardurak hartu eta banatu, antolatu, nork bere lekua hartu, pozak, minak eta desirak elkarri kontatu, errespetua landu, elkar ulertzen saiatu, erabakiak hartu... Eman, jaso eta moldatu, biziki-detzaren sokan funanbulista bihurtuko dituzte ikusleak.

Ikuskizuna Aiurri astekariak antolatu du, Urnietako Udalaren laguntzarekin.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen batera hainbat pertsonaia igoko dira taula gainera. Baten bat bihurria, baina gehienak maitagarriak. AIURRI

Sarrerak salgai

7 euroko prezioan salgai daude Andoaingo Aiurri eta Ernaitzan eta Urnietako BKN kafetegian eta Xauxar tabernan. Baita Hernaniko Leokadisti liburu-dendan eta Lasarte-Oriako Ttakun eus-

kara elkartean. Azken sarrerak, geratuko balira, salgai ipiniko dira Egape ikastolako jolastoki estaliaren kanpoaldean arratsaldeko 16:30etik aurrera.

17:30ean hasiera emango diote "Borobilean" ikuskizunari.



Euskal Frouzen antzezlanak Lekaion

Antzerki festa polita antolatu zuten Egape ikastolako haurrek, joan zen larunbatean. Euskal Frouzen unibertsoa aurkeztu zuten beren senitartekoei eta Urnietako gainerako antzerkizaleei. Izaki majikoz betetako istorio eta abenturak bata bestearen ondoren uztartu zituzten: Tximeletak eta kastoreak, xagutxo pipirinak, katutxo dibertigarriak, elur panpin maltzurak... Pertsonaje horiek guztiek 28 C-ko hego haizetik -2C-rako bidaia egin zuten, zortzi segundotan. 7-12 urte bitarteko 28 antzezle aritu ziren Joxe Mari Berasategiren esanetara, berebiziko graziarekin.



Gaztetxoek zeharkaldi luzeagoa egin zuten, tontorrera iritsi aurretik. ZANPATUZ

Zanpatuz ttikirekin irteera Buruntza mendi tontorrera

Eguraldia narrats samarra bazen ere, 50 lagunek parte hartu zuten txikiarekin egin zen laugarren irteeran

Erredakzioa URNIETA

Familia giroan mendira abiatzeko gogorik ez da falta eta, gauzak horrela, maiatza aldean egiten den Zanpatuz ttiki eguna egonkortu egin dela esan daiteke. Are gehiago, eguraldi petrala izanagatik ere, 50 lagunek parte-hartzea lortu zelako. Kopuru handi samarra da. Haur, gazte eta guraso, Buruntzako tontorra helburu zutela Azkor-

tetik irten ziren igande goizean.

Iratxoek ipinitako pistei jarraiki, gaztetxoek ibilbide luzeagoa osatu zuten. Txikiarekin zuzenean tontorreraino igo ziren. Etxera itzuli aurretik, mendizaleek Buruntzako San Roke ermitaren arkupeetan hamaiketako ederra egin zuten. Zanpatuz mendi elkartek igandean parte hartu zuten guztiei esker ona adierazi nahi die.



Txikitxoak Buruntzako tontorreraino iritsi ziren. ZANPATUZ



Hamaiketakoak gozatu zuten San Roke ermitaren arkupeetan. ZANPATUZ

Ainhoa Ozaetaren aldeko agerraldi jendetsua

Andoaindarrak 2008ko maiatzean atxilotu zuten Jon Salaberria, Igor Suberbiola eta Xabier Lopez Peñarekin batera. Egun, sorterritik 950 kilometrotara dagoen Reo espetxean preso dute, 22 urteko espetxealdira kondenatuta. Hamar bete ditu



Senideak, lagunak eta herrikideak joan zen ostiraleko agerraldian, Zumea plazan.

Erredakzioa ANDOAIN

Hamar urteko espetxealdia bete du, osorik urruntze egoeran. Bere egoeran dauden preso guztiei bezala, urruntzea zeharkalte bilakatu da etxeko eta senideentzat. Ainhoa Ozaetaren kasuan, hamar urteak Paris inguruko espetxeetan igaro ditu. Lehenik Fleuryko espetxean preso izan zuten; Andoaindik 930 kilometrotara. Azken urte eta erdian zertxobait urrunago dago, Andoaindik 950 kilometrotara dagoen Reo espetxean, hain zuzen.

Joan zen ostiral arratsaldean Ozaetaren senideek eta lagunak agerraldi jendetsua egin zuten Zumea plazan, herrikideari elkartasuna adierazteko eta dagozkion eskubideak aldarrikatzeko. Iñosken Mujikak irakurri zuen manifestuan Ozaetak pairatzen duen urruntze egoera salatu zuten: "Azpimarratzekoa da hamar urte hauetan zigor erantsi gisa oso urrun mantendu dutela, nahiz eta berak Euskal Herritik gertuen dagoen espetxera ekartzea eskatu. Ainhoa gure artean nahi dugu. Senideok, lagunok, lankideok...

gure artean nahi dugu. Urrun daukate. Urrunegi. Herrian behar dugu. Asierrekin batera gainera presoek Euskal Herrian, kalean behar duten bezalaxe". Eskaera hori gizarteratzeko, datozen egunetan ekitaldi sorta antolatu dute.

Aro berrian ere parte hartzeko beharra azpimarratu zuten
Ekimenen bozeramaileek aro politikoa berriaz eta sufrimenduaz

hitz egin zuten, parte hartzera deitzaiekin batera: "Garai berria zabaldu da Euskal Herrian, Andoainean asko sufritu dugu. Behin betiko bakea lortzeko lana dago oraindik, eta zeregin horretan pertsona guztiak beharrezkoak dira, baita Ainhoa Ozaeta eta Asier Oiartzabal ere. Horregatik Ainhoari eta senideei elkartasun beroena adieraztearekin batera, andoaindarrak ekimenetan parte hartzera deitu nahi ditugu".

Hitzaldia eta giza-katea

Agerraldian sentsibilizazio kanpaina iragarri zuten, bi ekitaldiren berri emanez. Lehenengo datorren maiatzaren 22an izango da, emakumeak eta kartzela hizpide hartuta. Bertan hizlari arituko dira Ainhoa Ozaetarekin preso egon izan diren Ane Miren Alberdi eta Ekhiñe Eizagirre. Hitzaldia Irunberri elkartearen izango da, iluntzeko 19:30ean hasita. Bigarren ekitaldia datorren maiatzaren 26rako iragarri dute. Eguerdiko 12:00an hasita, giza-katea egingo dute Bastero plazatik Zumea plazaraino.

Sare herritarra ekimenak, bestalde, eskualdeko preso guztien eskubideen alde mendi irteera antolatu du Santa Barbarara. 10:30ean abiatuko dira andoaindarrak, Goikoplazatik. Urnietarrak ordu berean ere, baina San Juan plazatik.



LSB

Euskadi mailako txapelketa

Datorren maiatzaren 22an La Salle Berrozpe ikastetxeko Unai Alkorta, Mikel Arrate, Asier Askarai, Arkaitz Azpillaga, Ekain Bellanco eta Jon Gil ikasleek Euskoskills txapelketan parte hartuko dute. Haiekin batera izango da Xabier Puertas irakaslea ere. Diseinu Mekanikoaren atalean lehiatuko dira, Irunen. Irabazleak estatu mailako lehiaketan parte hartzeko txartela eskuratuko du.



AIURRI

Hondakinak sailkatzeko hiztegia

Andoaingo Udalak, eskualdeko Mankomunitatearekin batera, 'Hondakinak sailkatzeko hiztegia' liburuxka zabaldu du herriko etxebizitza guztietan. Egunerokoan hainbat produktu eta soberakin sailkatzeko garaian sor daitezkeen zalantzak argitzeko argitaratu dute. Edukiotzuen aukera zabalagoa izanik, hiztegia ondo birziklatzeko lagungarri izango da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

"Kalegiroan" zikloa maiatzean eta irailean

lazko iraileko ekimenak izan zuen harrera ona ikusita, aurten eskaintza bikoiztea erabaki du Andoaingo Udalak. Asteburu honetan kale antzerkia izango da Andoaingo kaleetan, eta hurrengo asteburuan Katramila eguna. Irailean saio gehiago izango dira

Erredakzioa ANDOAIN

Garbiñe Agirre kultur teknikariak eta Esti Mujika kultur zinegotziak aurten bikoiztuta datorren zikloa aurkeztu zuten. Mujikaren hitzetan, Andoaingo txoko irekiak kultur jardueretako aproposak dira: "Herriak antzerkia, musika eta dantza uztartzeko gune aproposak eskaintzen dituzenez, udaberriko eta udazkeneko ohiko jarduerak indartu nahi ditugu". Herritarrak kulturara gerturatzeko beste modu bat dela sinetsita daude.

Lehen saioak asteburu honetan

Maiatzaren 19an, goiz eta arratsalde, 'Sardina bakalao' antzerki ibiltaria izango da. Basteron eta Zubiaurre etxean saio bana eskainiko dute.

Iluntzean, berriz, 'Sefini' antzezlan ikusgai izango da.

Maiatzaren 26ean, bestalde, Katramila Andoaingo antzerki taldeak ikasturte amaierako saioa eskainiko du.



Garbiñe Agirre eta Esti Mujika, Kalegiroan zikloaren aurkezpen ekitaldian.

Bigarren txanda irailean

Udalak dagoeneko iraileko egitasmoa ere lotuta dauka. Datorren irailaren 22a dantzas beteriko eguna izango da, Moveo Bartzelonako dantza eskolaren eta Hika antzerki eskolaren "Sagartu" ikuskizunarekin.

Zikloaren azken egunean, irailaren 29an, MugMus laborategiaren dantza ikuskizuna eskainiko dute Arraten. Dantzen erritmoan, emanaldia zirku batean bilakatuko da.

Kaleaz eta arteaz gozatzeko egunak iristear dira, beraz.



Letamendi Basteroko erakusketaren irekiera ekitaldian. AIURRI

Alberto Letamendi artegilearen erakusketa ikusgai

Loturak vs Lokarriak izenburuko erakusketa irekita dago Basteron ekainaren 2ra bitarte

Erredakzioa URNIETA

Alberto Letamendi Ordiziako artistak ikuspuntu gogoetazale eta kritiko batetik gerturatu nahi izaten du mundura. Bere lanetan islatzen da jarrera hori.

Kafkaren eta Orwellen eragina

Basteron ikusgai jarri dituen artelanetan nabaria da Franz Kafka eta George Orwell idazleek berarengan daukaten eragina. Inaugurazio ekitaldian adierazi zuen bezala "erakusketaren izenburuak dualismoa agertzen du. Nire asmoa bi idazleen obren mezuak lotzea izan da. Batetik, barruko lokarriak dauzkagu, Kafkaren obra irakurtzean zer sentitzen dugun, zerk kezkatzen gaituen, geure barruan zer bilatera bultzatzen gaituen. Bestetik, kanpoko lotura dago, Orwellek 1984 obran sortu zuen Big Brother edo Anai Handia pertsonaje orojakilea, lurta guztiok kontrolatzen gaituena".

Erakusketan zehar Al Jauna izeneko pertsonajeak eragiten du berebiziko arreta, beste artelanen artetik. Bere ametsak, bizi dituen metamorfosi prozesuak eta beste zenbait egoera irudikatzen dira. "Ispiluari begira azaltzen da, esate batera; kezkatu dago, bere egoera zein den jakin nahi du, eta bere alter egoa topatu nahian dabil".

Gizaki anonimoak ere nonahi topa daitezke. "Gizartea horrela irudikatzen dut goitik begiratuta. Jendea han eta hemen, manipulatu; azken batean, hor gaude denok, kontrolpean".

Letamendik teknika ezberdinak erabiltzen ditu. Materialari dagokionez ere, oso jarrera irekia dauka; besteak beste, berunari, burniari, hormigoiari, oihalari... heltzen dio.

Honako ordutegia dauka: asteleheneetik ostiralera 18:00-20:00, eta larunbatetan 10:30-13:30 eta 18:00-20:30.



Bertxin elkartearen ereserkia

Bertxin Jubilatua eta Pentsiodunen elkarteak badu ereserkia, nola ez, Joxe Mari Oizartzabalek konposaturikoa. Joxe Ramon Berrondok jarri dio hitza doinuari. Elkarteko kide Nemesio Zatarain, Eusebi Fernandez eta Maria Teresa Iruretagoienak eta Gora Kale Txiki Bandako Joxe Mari Oizartzabal, Jesus Ibañez eta Joxe Ramon Berrondok egin zuten aurkezpen ekitaldia. Pozik agertu ziren elkarteko kideak, abesti berriaren partiturak eta grabazioa eskuetan zituztela. Doinua biribilketa martxa bat da, bizi-bizia, danborrarekin jotzeko modukoa. Kaletxikiko jaietan eskainiko dute.



Futbola heziketarako tresna gisa

Futbola eta heziketa elkar lotuta doazen bi jarduera dira Igor Bere andoindarrarentzat eta Pablo de Torres urnietarrarentzat. Eskarmentu handikoak biak, egunerokoan futbola ikuskizunaz harago doan jarduera dela erakusten dute

Andoni Urbistondo ANDOAIN

Bakoitza bere herrian, aski ezagunak dira Igor Bere andoindarra eta Pablo de Torres urnietarra. Futboleko ibilbide polita osatu dute, tarteka arnasa hartzeko irten egin izan behar badute ere. Ez ditugu klubuen bozeramaile gisa elkarrizketatu, Aiurrin adituen eta arituen aho-tsa izateko baizik.

Futbola ia denon ahotan izaten den kirol jarduera da. Zuen kasuan, benetako pasioa da.

Pablo de Torres: Bai, pasioa da, droga on bat. Batez ere afizionatuen mailako futbola. Ingurua atsegin dut, eta heziketa modu edo bitarteko bezala hartzen dut. Bere alde onak eta txarrak ditu, baina nik ilusioa bizi-bizirik mantentzen dut. 32 urte daramatzat entrenatzen, eta jokatzeko ere batzuk egin nituen.

Igor Bere: Pasioz bizi dut futbola, baina futbolarik nirekin egin zuen topo. Saskibaloiarekin hasi nintzen La Sallen, baina pixkanaka futbolera egin nuen, sortzen zuen ilusioa ikusita. Euskalduna taldean hasi nintzen, hezitzaile-irakaslea naiz lanbidez, eta gazteen formazioan heziketa oso garrantzitsua da. Ikasi egiten duzu, eskarmentua hartu, eta behin sartuta zaila da uztea.

Futbola balio onak txertatzeko modua da, beraz.

Igor Bere: Gogoan dut behin Espanyol taldea etorri zela. Javier Aguirre mexikarra zen entrenatzailea orduan, eta zera esan zidan: "Futbol jokalariek baino, pertsona onak izan dai-

tezela izan behar da zure erronka". Futbolaria izan, ahalik eta ondoen jardun, irabazi, baina talde lana lehenetsiz, norberaren interesen gainetik. Helburu komuna edukitzea, eta denak inplikaturik sentitzea. Norbaiti gutxi jokatzeko min egiten ez dionean, taldearen mesedean, aurrerapauso handia eman duzu.

Pablo de Torres: Edozein kirol jarduera baloreak sustatzeko egokia da. Talderen bat zuzentzeko ardura hartzen duzunean, helburu bat finkatu behar da, jokalariek gazteak edo zaharagoak izan. Alor tekniko eta taktikoa ere garrantzitsua da, landu beharrekoa, balioekin batera.

Berekoikeriari aurre egitea ez da batere langintza erraza izango, bereziki lehia handia dagoenean.

Igor Bere: Gizarteak aukera berdintasuna eskatzen du, baina kirol mailan gora zoazen heinean lehiakortasuna agertzen da, eta lehiakortasun horrek talka egiten du berdintasun irizpide horrekin. Prozesu naturala da, une batean agian ezin duzu aukera berdintasun hori mantendu. Eskola Kirolan denek antzera jokatzeko dute, gutxieneko teknika bat lortu eta garatzeko, baina uneren batean batzuk besteak baino hobeak izango

"GUTXI JOKATZEA ONARTZEA, TALDEAREN MESEDETAN, AURRERAPAUSSO DA"

IGOR BERE, EUSKALDUNA

dira, eta orduan, zenbaitzuk taldearen mesedean lan egiteko bidea bilatuko dute, eta bere buruaren distira bilatu. Futbol federatua hasten denean beti piztuko da lehiakortasunaren alde ezkutu hori.

Pablo de Torres: Ume guztiek ez dute maila berdina, tekniko edo taktikoki. Eta hori onartu egin behar da. 7-8 urteko mutikoak gardenagoak dira, ez daude hain kutsatuta telebistan futbolarik islatzen duen antzerki eta polemikarekin. Hazten doazen neurrian, ordea, gauza asko ikusten dituzte, gauza asko barneratu, eta gure lana antzerki eta polemika egoera horiek saihesteko lan egitea da.

Entrenatzaileak talde berarekin gehienez bi urte egitearen aldekoa naiz. Berekoikeriak, egon, badaude, noski. Landu, zaindu egin behar dira. Kudeaketa hori oso zaila da. Familia bat kudeatzen ari zara, ez jokalaria bat bakarrik. Jokalaria eta horren familia. UKEn 268 familia kudeatzen ditugu. Guk ordu gutxi egiten ditugu beraiekin, eta tarte horretan arau eta balio batzuk betetzeko eskatzen dugu, eta denok ez dute borondate ona. Arau horiek betetzeko ardura duten lehenak entrenatzaileok gara. Entrenatzaileak ez doanak ez duela jokatu dion araua indarrean jartzen baduzu, be-tearazi egin behar duzu, jokatu gabe geratzeko dena taldeko Messi bera bada ere. Batzuetan kirol egoerak, garaipen beharrak, arau horiek kolokan jartzen dira... Ez da erraza.



Euskaldunako Igor Bere eta Urnieta Kirol Elkarteko Pablo de Torres Aiurriko egoitzan. AIURRI

Gurasoengandik gertu zaudete, ezinbestean. Zer nolako esperientzia izan duzue gurasoekin?

Igor Bere: Orokorrean familiekin esperientzia onak izan ditut. Helduak entrenatu izan ditut, eta litekeena da maila horietan familien halako presiorik sen-

titu ez izana. Gazteagoekin ere ez dut halako oroitzapenik. Eskola Kirolean hasi nintzenean, ohartarazi ninduten, gurasoak hau eta beste, baina ni oso pozik nago. Komunikazioa egotea asko eskertu digute, zer egin nahi dugun azaltzeko urte hasierako bileran esaterako.

Pablo de Torres: Gurasoen jarduna ezinbestekoa da. Gurasoek lagundu egin behar dugu gure semea edo alaba, eta taldea. Ez zuzendu. Halako marra bat finkatu behar da, eta gurasoei, marra hori zeharkatzen badute

"JOKALARIAREKIN BAKARRIK EZ, FAMILIAREKIN ARI ZARA LANEAN"

PABLO DE TORRES, UKE



ezer larririk ez dela gertatzen adierazi, baina garbi utzi marra hori pasa gabe badagoela entrenatzaile bat, taldea zuzentzeko ardura duena.

Taldearen inguruko eragile guztiei ulertarazi behar zaie funtsezkoak direla taldearen funtzionamendu onean: jokalaria, gurasoak, entrenatzaileak, monitorea...

Hona iritsita, entrenatzaile baino gehiago hezitzaile al zarete?

Igor Bere: Klub askotan ikusi dut entrenatzaile onenak gazteen taldean egon behar dutela dio-

tela, baina gero entrenatzaile onenak jubenil edo senior mailara bideratzen dituzte. Alegia, klubeko talde onenera. Gure kasuan, gazteekin konfiantza eduki zaleak gara, hezitzeko grina eta ilusioa sumatzen dugulako.

"EMAKUMEZKO HIRU TALDE SORTU NAHI DITUGU DATORREN DENBORALDIRAKO"

IGOR BERE, EUSKALDUNA

Hezitzaile figura hori oso garrantzitsua da gazte mailatan. Heziketak integrala izan behar du. Futbolaz ari gara, baina baita errespetuaz ere: aurkariari, epaileari, denei. Balio horiei garrantzi handia ematen ari gara. Entrenamenduetan teknika eta taktika bai, heziketa ere bai.

Pablo de Torres: Entrenatzailearen formazioa funtsezkoa da. Lehen zeregina entrenatzea gustukoa duen jendea bilatzea da. Eta bilatu ostean, formakuntza jasotzera animatu. Egin behar duzuna ikasteko baino, egin behar ez duzunaz jabetzeko. Futbola garatzen ari da, familiek diru gehiago dute, baina klubek gutxiago, eta horrek entrenatzaileek titulazioa lortzeko zeregina zailtzen du, ikastaroak ordaindu egin behar direlako. Bakoitzak bere kabuz edo klubak ordainduta, titulua lortu ostean klubarentzat lan egiteko baldintzapean. Aldundiak teknikarien formakuntzan ekimen interesgarria burutu zuen bere garaian, baina orain teknikari horiek guztiak igerilekuetako monitorea dira, ez dagoelako jende horren garapena bultzatzeko esparru ekonomiko bat.

Profesional mailako futbolaz zein iritzu duzue?

Igor Bere: Txanponaren bi aldeak aurki daitezke futbol profesionalean. Pasio handiko kirola da, jende askok praktikatzen duena, denon ahotan dago. Kirol sinplea da, baloi bat eta 22 lagun behar direlako, ez gehiago. Telebistak uneoro futbola erakusten du, eta horrek irismena ikaragarri handitu du. Oihartzuna, negozioa ikaragarri hazi da eta hortik karga ezkorra datorrigu. Ni jarraitzailea naiz, futbola ikusten dut, baina ez nau asetzen... Real 2. mailara jaitsi zenean jendea negarrez ikusi nuen, eta futbolariak bazkidea baino gutxiago sufritzen... Horrek erakutsi zidan futbol emaitza bategatik ez nuela triste egon behar.

Pablo de Torres: Beste mundu bat da. Polemikaz harago, jubenil mailako mutilei eta golei edota estrategiari erreparatzeko eskatzen diet.

Futbol profesionaleko kirol talde batzuk atsegin ditut, Atletico de Madril taldearen egunez eguneko lan hori. Edo Eibar taldea, 7.000 zalerekin lan puska egiten ari baita.

Emakumezkoen futbolarik garapen ikaragarria izan du. Fenomenoak oinarri sendoak dituela dirudi.

Igor Bere: Euskalduna, zuzendaritza berriarekin, emakumezkoen futbola sustatzen ari da. Egin izan da orain baino lehen ere, baina orain sendoago. Urnietari dagokionez, uste dut erreferente bat dela. Andoaingo neskek han jokatu izan dute, Andoainen ezin zutelako, eta azpiegitura sendoa daukate bertan.

Euskaldunan egun Salva Parada ari da lanean, eta asko mugitzen ari da. Realeko jokalariek Ubitarten prestaketa saioa egin zuten. Gure jokalariek erreferenteak dituzte, Nahikari Garcia adibidez, eta hori ezinbestekoa da. Andoainen bi talde ditugu: Infantil mailan 8 eta 11 jokalariko talde bana. Garrantzitsuena da kolektibo batetako kide gisa sentitu direla, eta horrek indartsu egin dituela. Hurrengo denboraldiari begira, hiru talde atera nahiko genituzke: infantil, kadete eta jubenil mailako talde bana.

Ez dugu ahaztu behar, Urnietan bezala, Andoainen ere eskubaloiak tiradizo handia duela, eta hori jokalaria erakartzeko garaian ere ere aintzat hartu behar da.

Pablo de Torres: Zeresana eman dezakeen baieztapena egingo dut. Futbolak matxista izaten jarraitzen du, eta emakumezkoen futbolaren garapena futbola nork zuzentzen duen finkatuko du. Gipuzkoan, ezagutzen dudana gizonak dira nagusi, eta horrek egoeran eragin zuzena dauka. Pausoz pauso bagoaz, baina... Urnietan infantil, kadete eta erregional mailan ditugu taldeak. Joera jubenilen kategorian ezabatzea izango dela dirudi. Lana behe-behetik egin nahi genuke, katea mantenduz infantil mailatik erregionalera. Katea hausten bada ez baita prozesua bere osotasunean betetzen.

Gurasoak aipatu ditugu lehen. Inguruan epaileekin izandako ikamikak ez dira gutxi

Pablo de Torres: Epailea jokoren atal bat da. Zenbaitetan esan

"FUTBOLAK MATXISTA IZATEN JARRAITZEN DU. ZUZENDARITZATAN GIZONA DA NAGUSI"

PABLO DE TORRES, UKE

dit jokalariren batek, epaileagatik: "Oso txarrak dira, baina!". Eta nik erantzun: "Bai, baina zu ere bai". Epaile jarduna oso zaila dela ulertu behar dugu, eta harmailetan jakintsu asko dago, ustezko entrenatzaile asko. Epaileek ere laguntza onartu behar dute, ez urrundu, edo harropuzkeriaz jokatu. Egun, partida guztietan daude epaileak, baina nik ezagutu nuen garai bat hala gertatzen ez zena, eta moldatzen ginen.

Andoaingo Ubitarte futbol zelaian bada halako errespetuzko dekalogo bat, zelaira daraman bidean, eta hura irakurri eta aintzat hartzea interesgarria da denontzat. Horrelako eredu gehiago behar ditugu Gipuzkoako futbol zelaietan.

Igor Bere: Ondo ezagutzen dut gaia, anaia 3. mailako epailea baita. Askotan eztabaidatzen dut berarekin. Konparaketa egingo banu jokalaria, guraso, entrenatzaile eta epaileen artean, garbi daukat nondik sortzen diren jokabide kaskar gehienak. Jende arrunt kopuru handiena epaileen artean dago.

Nork ez du akatsik egiten? Fororen batzuk sortu beharko lirakeke, hainbat egoerei buruz edo pertsonen inguruan iritziak elkar trukatzeko. Sentsazioa daukat futbolarik eta futbolaren bazkari kontrolpetik ihes egin digula.

Denboraldia amaitzen ari da, eta zuen klubak dagoeneko balantzea egiten hasi dira. Zein da UKErena eta Euskaldunarena, denboraldia-zen azken txanpa honetan?

Igor Bere: Orokorrean oso pozik gaude. Kirol helburuak ia erabat bete dira, batez ere talde nagusia, liga hasieratik igoera lortzeko borrokan mantendu baita. Jubenilek igoera lortu dute, entrenatzaile eta laguntzaile gazteekin. Kadetea ere mantendu egin da Ohorezko Mailan. Beste kirol helburu batzuk ere badaude, jakina, baina balantzea baikorra da.

Pablo de Torres: Ez dugu nahi genituzkeen kirol helburuak lortu, hori horrela onartu behar da. Entrenatzaile guztiak tituludunak izateko helburua dugu, ez gaude denbora pasa, eta kirol emaitzetatik harago, gazteak entrenatzera ilusioz joate hutsarekin ni konforme.

Ez daitezela obligazioz hurbildu prestaketa saioetara, gustuko dutelako baizik.

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA

ESKUBALOIA**SENIOR MAILA, MUTILAK**

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZA

Urnieta-Aritzatalde **25-31**

SAILKAPENA

1	Aritzatalde	6 puntu
2	Urnieta	6 puntu
3	Ordizia	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

--:-- Urnieta / Atsedena

SENIOR MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZA

Urnieta-Irauli Bosteko **14-21**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Ereintza-Urnieta / Lar, 19**JUBENIL MAILA, MUTILAK**

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZA

Urnieta-Bidasoa Irun **24-30**Ordizia-Leizaran **20-23****JUBENIL MAILA, NESKAK**

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZA

Leizaran-Aiala -

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZA

Pulpo-Urnieta **29-13**

ASTEBURUKO PARTIDA

--:-- Urnieta / Atsedena

KADETE MAILA, MUTILAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK

Ereintza-Leizaran (1. multz.) **29-39**Egia 3-Leizaran Horia (B multz.) **28-17**

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00 Hernani-Leizaran / Ig, 20**11:15** Leizaran Horia-Legasa / Lar, 19

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZAK

Urnieta-Amenabar B **29-33**Usurbil-Urnieta **42-42****KADETE MAILA, NESKAK**

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZAK

Bera Bera-Leizaran Urdina **34-23**Urnieta-Aiala B **32-27**

SAIKAPENA

1 Ereintza **8 puntu**4 Leizaran Urdina **4 puntu**5 Urnieta **2 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

18:45 Leizaran Urdina-Urnieta / Lar, 19**SASKIBALOIA****SENIOR MAILA**

EMAITZA

Ganbara-Larramendi **48-38**

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Larramendi-Ganbara / Lar, 19**KADETE MAILA**

EMAITZA

Ganbara-Irun **47-40**

ASTEBURUKO PARTIDA

10:45 Atletico-Ganbara / Lar, 19

Andoain-Andoain bizikleta irteera berezia

TXIRRINDULARITZA WNT Total Cycling Andoain-Andoain bizikleta ibilbidearen bigarren edizioa burutu zuten, joan zen larunbatean. Eguraldi txarrarekin izan arren, bertako txirrindulariak kanpoko bisitarien gidari lanetan gogotsu aritu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

WNT-ROTOR Pro Cycling nazioarteko txirrindularitza taldea da, Britainia Handiko lizentzia-rekin emakumezko talde profesionalaren jabea. Babesle nagusiaren interesak Estatu mailan eta Euskal Herrian WNT Ibericaren bitartez bideratzen dituzte, eta jardunaldi ezberdinak antolatzen dituzte. Horietakoa WNT Total Cycling izeneko jardunaldia da. Joan zen larunbatean ospatu zuten Andoainen eta bertara enpresako langileak, bezeroak, banatzaileak eta txirrindulari taldeko kirolariak hurbildu ziren 80 kilometroko ibilbidea osatzeko. Haiei bidea errazteko, Andoaingo Txirrindulari Eskolak laguntzaile lanak hartu zituen. Gipuzkoan barrena, bidea irekiz, Andoaingo prestataile eta txirrindulari ohiak aritu ziren. Aurtengoan Olano, Galdeano edota Baldinger txirrindulari ohien parte-hartzearekin.



Baldinger, Olano eta Gonzalez de Galdeano, WNTko neskekin batera, Andoainen.

Andoaingo Eskolaren martxa

Kadete mailako txirrindulariak Abadiño aldean ibili ziren, joan zen igandean. Egun bat lehenago, alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Zarautzen. Iزارo Etxarri alebin mailan txapeldun izan zen, eta Oihan Amilibia hirugarren. Guzti-guztiek nabarmentzeko lana egin zuten.



UKE

Txapeldun-orde GRAVNin

TRINKETEIA Julen Loitegik eta Eñaut Esnaolak Bizkaiko taldearen aurka finala galdu zuten, GRAVNI trinkete txapelketa ezagunean. Partida ikusgarria izan zen, ETB4n ikusi ahal izan zena. Lastima txapela Urnietara ekarri ez izana. Biak, gainera, klub bereko jokalariek dira. Euskal Herri osoko selekzioen artean kasu bakarra da.

Iturzaeta herrikoia, hainbat partida asteburu honetan

PALA Abiatu da binakako txapelketa, euripean. Meritu handia izan dute parte hartzaileek, eta horrexegatik antolatzaileek esker ona adierazi diete: "Txapelketa aurrera eramaten laguntzeagatik txalo handia denentzat".

Maiatzak 19, larunbata Nesken arteko partidak

A Taldea:

17:20 Irati-Itsasne Arantxa-Amaia.**17:40** Kristina-Naiara Irati-Neide.

B Taldea:

18:00 Raket-Alaine Olatz-Amagoia.**18:20** Ugalde II-Ugalde III Arantxa-Mari.

GANBARA

Partida erabakiorra Allurralden

SASKIBALOIA Ganbarako kadete mailako jokalariek denboraldia borobiltzeko aukera daukate. Larunbat honetan, goizeko 09:00tan hasita, Erroibide taldearen aurka lehiatuko dira Allurralden. Ligan 2. eta 3. postuan sailkatuta daudenak elkarren aurka arituko dira, sari ederraren bila: Garaileak Lehen Mailan aritzeko txartela eskuratuko du.

Herriarteko partidak Andoain herriarentzat

Gipuzkoako Herriartekoan asteburu honetan bi partida jokatuko dira Arraten. Ostegunean iluntzeko 20:30ean gomazko paletakoak lehia murgilduko dira, eta ostiralean eskuz binaka Andoain eta Zizurkilen artekoa iluntzeko 19:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Gomazko paletako herriartekoa aurten lehenengo aldiz ospatzen ari da. Andoaingo taldeak joanekoa Zumaian jokatu zuen, 1-2 irabaziz. Banaka frontoi osoan Julen Loidi aritu zen, banaka 7aren barruan Aritz Eskudero eta binaka Iosu Etxeberria eta Ion Beloki.

Eskuz binaka, lehen partida

Ostiral honetan hasiera emango dio Andoaingo taldeak, Zizurkilen aurka. Kanporaketa gogorra dute andoaindarrek, Zizurkilek goi mailako piltariak dituelako. Horietako asko Andoaingo Gazteleku elkartearen aritzen direnak, hala nola, Enaitz Etxeberria, Julen Alberdi, Aritz Ezeiza eta Mikel Arrate. Hala ere, Andoaingo taldeak ilusioz gainezka ekingo dio txapelketa-ri. Zeintzuk jokatuko duten oraindik argi ez dagoen arren, hauexek dira aurtengo taldea osatzen duten pilotariak:



Arrate pilotalekuan giro polita sortu ohi da Herriartekoa iristen denean.

Kadeteak: Iker Uria, Eñaut Etxeberria, Nora Mendizabal eta Eneko Beloki.

Jubenilak: Urtzi Artola eta Eneko Gomez.

Nagusiak: Unai Etxeberria eta Imanol Usandizaga.

Gaztelekuren deialdia Andoaingo zaletuei zuzenduta

"Andoaingo herritarrak ostegunean eta ostiralean Arrate pilotalekura hurbildu eta gure pilotariak animatzera gonbidatu nahi ditugu".

Pala motza eta larruzko paleta herriartekoan

Joan zen astean hasi zen Gipuzkoako herriartekoa, pala motzean eta larruzko paletan. Andoaingo taldeari Olaberriaren aurka jokatzea egokitu zitzaion. Arraten talde bakoitzak partida bana irabazi zuen. Final laurdeneko lehena Andoainek galdu zuen (18-35), eta bigarrena Olaberriak (40-25). Lehia estua aurreikusten da, beraz, itzulerako partidarako.

Andoaingo taldea honako pilotariek osatu zuten: Koldo Ponche, Manex Lete, Ibon Altuna eta Ibai Iradi. Aipatzekoa da Koldo Poncek debuta egin zuela herriartekoan, 16 urterekin.

KARTELDEGIA: FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Hernani-Euskalduna	0-4
Deusto-Urnieta	6-0

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Euskalduna-Elgoibar / Lar, 19

ERREGIONAL MAILA, KOPA

EMAITZA	
Euskalduna-Urki	3-5

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA	
Urnieta-Bergara	2-1

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Beti Gazte-Urnieta / Lar, 19

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZA	
Urnieta A-Euskalduna A	3-4

SAILKAPENA

1 Euskalduna A	41 puntu
2 Beasain	35 puntu
3 Allerru A	33 puntu
4 Urnieta A	31 puntu
5 Lengokoak B	27 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30 Zestoa-Urnieta A / Lar, 19

15:30 Euskald. A-Lengokoak B / Lar, 19

KOPA

EMAITZA	
Euskalduna B-Añorga	1-3

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Danena-Euskalduna	0-2

ASTEBURUKO PARTIDA

19:30 Euskalduna-Axular / Lar, 19

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZA	
Antiguoko-Euskalduna	2-0

ASTEBURUKO PARTIDA

--:-- Euskalduna / Atsedena

KOPA

EMAITZAK	
Urnieta-Sporting H. B (4.multzoa)	4-1
Lazkao-Euskalduna (7.multzoa)	1-0

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Zestoa-Urnieta	4-0

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Urnieta-Zumaia / Lar, 19

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA	
Herrikide-Euskalduna	5-2

ANDOAINGO

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

A TALDEA	
Ekhia-Hogar Extremeño	2-3
Txalaka-Dad Kutxa	1-9
Centro Extremeño-Keler	2-3
Akerbeltz-Lanbroa	8-2

B TALDEA

Academia GF-Gorostidi	2-1
Ekaitz-Irunberri	2-4
Gorostidi-Powerade	5-3
Ekaitz-Academia GF	1-3
Ganbara-Irunberri	4-5
Pausoka-Academia London	5-0



AIURRI



AIURRI

Urnieta 3-4 Euskalduna, jubenil mailako partida zirrargarria

FUTBOLA Emozioz beteriko partida jokatu zuten Urnietan, larunbat arratsaldean. Euskaldunak garaipen horrekin lidergotza sendotu du. Igoera lortuta, liga amaitu eta gero maila bereko beste taldeko lehendabiziko sailkatuarekin finala jokatuko du. Urnietarren

kasuan, asteburuan jokatuko den ligako azken partida erabakiorra izango da. Hasteko, sailkapenean azken postuan dagoen Zestoa garaitu behar du. Eta bestetik, Allerruk etxeko partida galdu beharra dauka. Bi emaitza horiek emanez gero, igoerako play-offean arituko da.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 17

URNIETA Batzarra

Urnietako Udalak urte hasieran abiatutako parte-hartze prozesuaren ondorioak aditzera emango ditu.
18:30, Lekaio.

ANDOAIN Erakusketa

Alberto Letamendiren 'Loturak vs. Lokarriak' ikusgai, ekainaren 2ra arte.
Ohiko ordutegia, Bastero.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Tailerra

'Aplikazioak euskaraz' ekimena 5-8 urte arteko haurrei zuzenduta. Bidaide ekimenaren azken hitzordua.
17:30, Bastero.

URNIETA Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren eskutik, "Borobilean" ikuskizuna. Sarrerak salgai Urnietako Xauxarren eta BKNn eta Andoaingo Aiurri eta Ernaitzan.
17:30, Egape. 7 euro.

ANDOAIN Antzerkia

Masacre: Una historia del capitalismo español antzezana, Alberto San Juan eta Marta Calvo aktoreen parte hartzearekin.
21:30, Bastero.

LARUNBATA 19

ANDOAIN Irteera

Mintzalagunen irteera Alkizako Urmara museora.
10:30, Izen-ematea: Udala, AEK.

ANDOAIN Antzerkia

Kalegiroan zikloaren baitan bi ikuskizun: 'Sardina bakalau' antzezana, euskaraz.
12:30 Bastero.
18:00 Zubiaurre etxea.

'Sefini antzezana', erdaraz.
19:00 Zumea plaza.

URNIETA Ospakizuna

'Klik eguna' Gure Esku Dago ekimenaren eskutik. Hainbat herri eragilerek batera.
11:00, San Juan plaza.



URNIETA 'Klik eguna', Gure Esku Dago taldearen eskutik

Ekainaren 10era begira, Urnietako taldea sentsibilizazio lanetan ari da azken asteburuetan. Honetarako goiz osoko kultur jarduerak antolatuta dituzte herriko plazan, taldeko argazkiarekin amaituko direnak. Informazio osoa, 6. orrialdean.
11:00, San Juan plaza.

IGANDEA 20

ESKUALDEA Irteera

Sarek antolatuta, mendi irteera eta kultur ekitaldia Santa Barbaran.
10:30, Goikoplaza. Andoain.
10:30, San Juan plaza. Urnieta.

ASTELEHENA 21

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardi Udal Haur eskolak matrikulazio kanpaina zabalduko du. Ate irekiak maiatzaren 21ean eta 28an, 16:30ean eta 17:30ean.
Bastero.

ANDOAIN Matrikulazioa

Ikasturtea amaituta, ekainaren 26an haur txikiei zuzenduriko Goazen Jolastera ekimena abiatuko da. Izen-ematea, hilaren 21etik aurrera.
Gazte Lokala.

ASTEARTEA 22

ANDOAIN Hitzaldia

"Emakumeak eta kartzela", bi preso ohien parte hartzearekin.
19:30, Irunberri.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO


La casa torcida

Larunbata, 19:
19:30; 22:00.
Igandea, 20:
19:30.
Astelehena, 21:
19:30; 22:00.



Un lugar tranquilo

Larunbata, 26:
19:30; 22:00.
Ig, 27: 19:30.
Astelehena, 28:
19:30; 22:00.



URNIETA

Emanaldirik ez.

SINOPSIK



La casa torcida

Zuz.: Gilles Paquet-Brenner. **Herr.:** Erresuma Batua (2017).
Iraupena: 115 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Aitona aberatsa hil dute. Arrazoa?

Agatha Christie-ren eleberriaren moldaketa da "La casa torcida filma". Familiako

aitona pozoitu egin dute, eta susmo guztiak familiako kide batengana bideratuta daude.

Un lugar tranquilo

Zuz.: John Krasinski. **Herr.:** Estatu Batuak (2018). **Aktoreak:** Emily Blunt, John Krasinski, Noah Jupe,... **Iraupena:** 95 min.

Isilik bizi behar bizirauteko

Evelyn eta Lee Abbott-ek hiru seme-alaba dituzte eta hirigunetik aldentuta bizi dira New York iparraldean. Lurraz haraindiko izakien inbasioa pairatu behar izan dute

hilabetetan. Soinua dute gidari ehizarako. Horregatik isiltasunean bizi da familia, izaki horientatik ehizatuak izan ez daitezten. Zeinuen bitartez komunikatzen dira.

Matrikulazio garaia

Lourdes Iriondo Musika Eskola

Musika tailerra, musika hizkuntza, espezialitateak, instrumentu taldeak,... maiatzaren 25era arte egongo da zabalik izena emateko epea. Bertan bulegoetan edo Lekaion eman behar da izena. Ikaslea onartua izan den ala ez jakiteko, ekainera arte itxaron beharko da.

Galardi Haur eskola

0-2 urte bitarteko haurren heziketa eskaintzen du Andoaingo haurreskolak. Matrikulaziorako epea maiatzaren 21ean hasiko da. Basteron eman behar da izena. Aldez aurretik, ate irekiera saioak izango dira hilaren 21ean eta 28an arratsaldeko 16:30ean eta 17:30ean.

OSTIRALA 25

URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo Musika Eskolan izena emateko azken eguna.
Bertan, Lekaio.

URNIETA Ibilaldia

Adinekoen ibilaldia. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 18a. Irteera eta gero, bazkaria.
11:00, Denda Berri.
14:00, Oianume.

URNIETA Gazte Festak

Jaien hasierako ekitaldia. Egitaraua osorik, 6. orrialdean ikusgai.
20:30, Txupinazoa. S.Juan plaza.

LARUNBATA 26

URNIETA Argazki-rallya

Argazki-rallyaren XXV. edizioa.
09:00, Lekaio.

ANDOAIN Giza-katea

Ainhua Ozaeta preso politikoaren aldekoa, andoaindar talde batek antolatuta. Ekimenaren informazio gehiago 8. orrialdean.
12:00, Basterotik Zumea plazara.

ZORION AGURRAK



URNIETA
Markel
Zorionak Markel, 10 urte!!!!!! Muxu handi bat etxekeo partetik. Ama, aita eta Noa.



URNIETA
Angel
Maiatzaren 14an urteak bete ditu aitona Angelek. ZORIONAK! Egun polita izan da etxekeo guztiontzat! Muxuak!



URNIETA
Unai
Maiatzaren 19an Unaiak 10 urte beteko ditu, muxu eta besarkada bat amona Mertxe eta aitona Jexuxen partez. ZORIONAK MAITIA! Aurrera Errealak!!




ANDOAIN
Guerau Aira Jandula
Guerauk maiatzaren 16an 9 urte bete zituen. Zorionak eta muxu potoloak etxekeo guztien partetik!!



ANDOAIN
Izaro Irazu Roman
Izarok maiatzaren 30ean 11 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak etxekeo guztien partetik.



ANDOAIN
Oinatz Zatarain Korrotxano
Oinatzek 7 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Etxeko guztien, eta batez ere Unax eta Anerren partetik, muxu handi bat! Ondo pasa!



URNIETA
Paul
Maiatzaren 7an gure etxekeo piratak 3 urte egin zituen! Zorionak pirata! Muxu asko etxekeo partez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 19 eta igandea 20
ZATARAIN: Elizondo plaza, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 19 eta igandea 20
ETXEBARRIA: Andre, 48. 'Cuevas'
943 551 793. Hernani.
Gaez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Antzezlan polemikoa

Ostiral honetan, Bastero kulturgunean Teatro del Barrio konpainiak "Masacre – Una breve historia del capitalismo español" antzezlan eskainiko du gaueko 21:30ean hasita. Bikotea agertzen da taula gainean, besteak beste, hainbat galderen inguruan hausnartzeko: "Nork agintzen du Espainian?, Nork du botere ekonomikoa? Eta zergatik?"



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

Alberdiri 111 Akademia saria

Jenisjoplin eleberriatatik, Uxue Alberdi idazleak saria jaso zuen Andoainen. Larramendi Bazkunak antolatu zuen ekitaldia. Argazkian, Uxue Alberdirekin batera, Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburu-ordea, Ana Carrere Andoaingo alkatea eta Garbiñe Mendizabal Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria.



Kultura politiko demokratikoa

Joan zen astelehenean Lasarte-Orian "Gipuzkoarren kultura politikoaren ikerlan kuantitatiboa, 2017" txostena aurkeztu zuen Aztiker etxeak, Aldundiaren enkarguz. Aurkezpen lana Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak, Vaquero bizikidetzarako foru diputatuak eta Zaballos Lasarte-Oriako alkateak egin zuten. Eskualdeko ordezkari zabal bildu zen bertan.



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



**GOAZEN
JOLASTERA!
2018**

ANDOINGO UDALEKU IREKIAK

ZER DIRA?

Giro euskaldun, alai eta aberasgarrian egiten diren jolas-jarduera hezigarriak dira: tailerrak, jolasak, eskulanak, txangoak igerilekura..., lagunartean Andoaingo kultura eta ingurua ezagutzen dituzten bitartean.

NOIZ?

- Lehenengo txanda: **ekainaren 26tik uztailaren 13ra.**
- Bigarren txanda: **uztailaren 16tik 27ra.**

Ordutegia:

astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara.

NORENTZAT?

2010-2015 bitartean jaiotako haurrak (biak barne).



IZEN-EMATEA

NON

Anbrosia Olabide
Gizarte Zerbitzuetako Egoitza
Gazte Lokala.
Pio Baroja kalea, 1 - 682 688 416

NOIZ:

Maiatzaren 21etik 31ra
17:00-19:30, egunero
10:30-12:30, astearte eta ostegunetan.

PREZIOA

Kuota arrunta:

- **lehenengo txandan 77 €,**
- **bigarren txandan, 47 €**

Bi anai-arreba edo gehiagok izena ematean:

- **lehenengo txandan 63 €,**
- **bigarren txandan, 38 €.**

Oharra: epez kanpo ez da izena emateko orririk onartuko.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskuorria osorik beteta.
- Laboral kutxa ES84 3035 0026 2102 6007 1523 zenbakiko kontuan egindako ordainketaren agiria, beti ere haurraren izen-abizenekin.
- Gurasoetariko baten NANaren fotokopia.
- Osasun txartelaren fotokopia.